



## LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2014-10-21

BILERA ZENBAKIA: 14

ORDUA ETA LEKUA: Udaletxean arratsaldeko 19,00tan

PARTEHARTZAILEAK: 4 emakume eta gizonezko 1

## EGINDAKO LANAREN LABURPENA

### LANDUTAKO GAI ORDENA

1. Festetako bokata janaren balorazioa oso ona izan da orokorrean. Dena den 229,50€tako defizita izan dugu. Genero gehiegi erosi zen. Hau urrengo urterako kontutan izan behar da.
2. Ongizate taldearen balorazioa egiteko daukagu. Urrengo bileran zehaztu eta osatuko dugu.
3. Udalak urtero Euskal Fondoari bideratzen dion diru laguntza (1.255,43€) beste proiektu edo ekintzetarako erabili nahi izanez gero, baimena daukagu. Aztertzeke geratu da.
4. Zinema-dokumentalen gaiari lotuta, Azaroaren 25erako pelikula emanaldia antolatuko dugu, ondoren zozketa bat egingez. Abenduari begira besteren bat antolatzeko aukera ikusten dugu. Datorren urteari begira, joan den urtean egin genuen bezela, ziklo bat antolatuko dugu, hamabostean behineko maiztasunarekin, ahal den nehurrian interes soziala duten gai desberdinak landuz. Guzti hau aurrera eramateko (zozketak, pelikulak erosi, meriendatxo bat antolatu, etab) diru poltsa bat gure esku izatea komenigarria ikusten dugu. Helburu honekin datorren urteko aurrekontuetan Udalari 300€ko laguntza eskatuko diogu.
5. Goiekiren bidez bailarako herri txikitan lanean arituko diren bi pertsona kontratatu dira (psikologo bat eta hezitzaile bat). Gizarte Zerbitzu arloarekin batera, bailarako diagnostiko bat egingo dute, sei hilebeteen zehar, non isladatu nahi den, beraien laguntza eta aholkularitza beharrezkoak direla adin txikikoekin sortzen diren egoera gatazkatsuak konpontzeko garaian, gizarte langileen apoio modura beti ere.
6. Berdinbidean : egiten ari den lanak ez ditu hasera batean jarri ziren helburuak lortu, gazte taldearekin egin nahi ziren saioak ez dira aurrera atera. Beraz, aurrerantzean eta datorren urteari begira ondo aztertu beharko dugu lanketa hauekin jarraitu ala ez, aurkezten duten egitaraua



ikusiz.

7. «Denboraren Bankua »ri buruz : gaia oso interesgarria da eta aztergai badaude beste herrietan egin diren esperientziak. Dena den, gaiaren konplexotasuna ikusiz eta lan asko eskeini behako zaizkiola ikusiz, urrango urterako plangintzan sartuko dugu.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Pelikulak aukeratu eta zehaztu	Azaroak 18	E.M. eta M.E.
Ongizate taldearen balorazioa osatu	Azaroak 18	Denok
Berdinbideanekin hitzegin (noiz bukatzen den zehaztu)	Azaroak 18	M.E.
Euskal Fondoari buruzko informazioa jaso	Azaroak 18	Teknikaria

### HURRENGO BILERA

**Hurrengo bilera, Azaroaren 18an egingo dugu, asteartea arratsaldeko 7tan Udaletxean.**

Gai ordena:

- Aurrekontuak itxi
- Herriko zerbitzuen gida itxi, 2015eko egutegian ateratzeko
- Zer egin Euskal Fondoaren diru laguntzarekin?
- Ongizate taldearen balorazioa itxi
- Urrango pelikulak zehaztu eta datorren urteko zikloa antolatu